

**Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena
UEMAko partaidea den XXX Udalaren eta
Gipuzkoa Donostia Kutzaren eta Euskadiko Kutzaren artean**

2010eko abenduaren 18an

BILDURIK

Batetik,jn./and., XXXko Udalaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

Eta bestetik, ondorengo ordezkariak, aurrerantzean *finantza erakundeak* izenean:

- Gipuzkoa Donostia Kutzaren izenean,, haren lege ordezkari gisa eta horretarako ahalmena duela,
- Euskadiko Kutzaren izenean, Nuria Agirre Untzueta Giza Baliabideetako zuzendaria, haren lege ordezkari gisa eta horretarako ahalmena duela,

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

Alde batetik, XXXko Udala udaletxeko langileen eta herritarren artean euskararen erabilera handitzeko ahaleginetan ari dela, UEMA proiektuaren barruan edota Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) esparruaren barruan, eta, bestetik, finantza erakundeek dituzten bulegoak herritar askoren topagune ezin hobekak direla euskara erabiltzeko.

Hitzarmena izenpetzen duten finantza erakundeek bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzea dutela helburu, eta kalitatearen osagai funtsezkoa dela bezeroak harreman hizkuntza aukeratu ahal izatea. Helburu hori erdiesteko bidean, lagungarri dela bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka gainditzea, hizkuntza ahulenaren, kasu honetan euskararen, erabilera bultzatuz. Ikuspegi horrekin ari direla finantza erakundeak euskararen presentzia ugaltzen, indartzen eta sendotzen, dagozkion esparru guztietan.

Legeek euskararen ofizialtasuna aitortzen dutela kontuan hartuz, hitzarmen hau lege horiek betetzeko tresna lagungarria dela ere adierazten dute. Batetik, Eusko Legebiltzarrak onartutako Hizkuntz Eskubideen Dekretua, bezeroek ahoz eta idatziz euskaraz jarduteko duten eskubidea modu argi eta garbian aitortzen duena, eta, bestetik, Nafarroako Euskararen Legea, euskarari maila ofiziala aitortzen diona.

Finantza erakundeek aitortu nahi dute haien langileek bai eta udaletakoek ere euskara erabiltzeko adierazi duten borondateak eta konpromisoak egin dutela bideragarri hitzarmen hau gauzatzea.

Horregatik, aipatutako erakundeek euskara zabaltzeko eta sendotzeko asmoz, honako hau

HITZARTZEN DUTE

1. Elkarren arteko harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak, euskaraz izango dira. Horretarako, beharrezko baliabideak jarriko dituzte.
2. Finantza erakundeek XXXko haien bulegoetan bezeroekin dituzten harremanetan euskararen presentzia bermatuko dute.
3. Helburu hori betetzeko, honako neurri zehatz hauek hartuko dituzte, besteak beste:
 - 3.1. Bulego horietako langileak lan mota guztietan euskaraz jarduteko gai izango direla ziurtatuko dute. Helburu horretara bideratuko dira, bereziki, etengabeko trebakuntza eta laguntzarako tresna informatikoak. Horrez gain, bulego horietan eskaintzen dituen zerbitzu guztietarako kontratatzen dituen langile berriak, finko zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.
 - 3.2. Bezeroari lehen hitza euskaraz egingo zaio.
 - 3.3. Produktu berri bat kontratatzen datorren bezeroari eskaintza euskaraz egingo zaio. Eta finantza erakundeek eragiketen euskarri diren dokumentuak euskara hutsean edo ele biz eskainiko dituzte, euskarari lehentasuna emanda.
 - 3.4. Bezeroentzako zordunketa eta kreditu txartelak nahiz bestelako txartel guztiak euskaraz sortuko dira, kontrakoa eskatzen ez dutenei izan ezik.
 - 3.5. Urtean zehar ematen diren zerbitzu bereziak –errenta aitopenenaren kanpaina, esaterako– euskaraz izan daitezten, beharrezko baliabideak jarriko dira langileen zein herritarren eskura.
 - 3.6. Finantza erakundeek haien zerbitzuak euskaraz erabiltzeko deia egingo diete bezeroei, kanpainen bidez. Horretarako, sustapen lana egingo dute urtero.
 - 3.7. Kutxazainen pantailetan azaltzen den sarrerako mezu sorta euskaraz egongo da.
 - 3.8. Udalerrri honetako kartelak euskaraz jarriko dira, bai barrura bai kanpoaldera begira. Bulegoek bestelako argitalpenetan egiten duten publizitatea (aldizkari, jai egitarau eta abarretan) euskaraz jarriko da, beti ere euskararen kalitatea zainduz. Esku orriak ele bitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.
 - 3.9. Bulegoetan bertan idatzitako dokumentuak euskaraz egongo dira, bezeroak espresuki kontrakoa ez badio.
 - 3.10. Leku izenen kasuan, euskarazko izen ofizialak erabiliko dira dokumentu guztietan. Udalak zerrenda ofiziala emango die finantza erakundeei.
 - 3.11. Publizitate slogan eta gisakoak euskaraz ere sortuko dituzte, gaztelaniaz sortutakoen itzulpen soil eta kaskarrak izan ez daitezten.

3.12. Libreta eta kontuetan erregistratu eta idazteko eragiketak, langileak idatzi behar dituztenean edo egin ditzakeenean (ez makinak automatikoki), euskaraz idatziko dira. Makinek automatikoki egiten dituztenak ere euskaraz idazteko programatuko dira.

3.13. UEMAko udalerrietan, finantza erakundeak 25 urtetik beherako bezeroei komunikazioak euskara hutsean bidaltzen hasiko dira, hitzarmen honen epe amaierara iristerako, eta kontrakoa adierazten dutenei, ele biz orain arte bezala. Prozedura hori txertatu egingo da bezero berriak hartzeko protokoloan.

3.13. Finantza erakundeek informazioa zabaltzeko eta eragiketak egiteko sortutako banku elektronikoko zerbitzuetan euskarazko aukerak bermatzen eta lehenesten jarraituko dute.

4. XXXko Udala hitzarmen honen edukiaren eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko da. Horrekin batera, finantza erakundeekin dituen komunikazioetan euskaraz jarduteko konpromisoa hartzen du, ahoz eta idatziz, Udalari dagozkion eginkizunetan.

5. Hitzarmena eraginkorra izan dadin, jarraipen batzorde bat jarriko dute martxan sinatzaileok, gutxienez urtean behin bilduko dena, goian aipatutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko. Jarraipen batzordea UEMAko udalerriekin egingo da.

6. Jarraipen batzordeak zehaztuko du XXXn bulegoetan euskararen ahozko zein idatzizko erabileraren neurketa nola bideratuko den.

7. Hitzarmenaren iraunaldia bost urtekoa da. Epe hori beste bost urtez luzatuko da, bi aldeetakoren batek edo biek idatziz bertan behera uzteko borondatea azaltzen ez badute, gutxienez iraunaldia amaitu baino hilabete lehenago.

Eta ados dauden seinale gisa, agiri hau sinatzen dute, orriz orri eta hiru aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.